

Barraskiloak eta bareak

Bai udaberrian, nola udazkenean, sasoi euritsuen jarraian egun eguzkitsuak datozen barraskilo eta bareak ugaltzen dira, barazki askoren kimuak, landaretxoak eta hostoak irentsiz.

Nekazaritza biodinamikoan, aldiz eta izurrite forma hartzen ez duen bitartean, onuragarria dela pentsatzen da izaki honen presentzia, beren likak kaltzioaren ekarpena egiten diolako lurrari. Dena den, gure baratzean arazoa bihurtu bada, teknika desberdinak aplikatu ditzakegu, produktu industrialak azken aukera bezala utziz, segidan aipatzen diren teknika guzti hauek huts egin dutenerako:

- Barraskilo eta bareen harrapatzaileen presentzia bermatu: trikua, apoa, behor-txoriak.
- Zerrautsa, errautsa, kare hila (pintura eta antzeko kimikoren arrastorik gabe) landare sentikorren inguruan zabaldu. Kontutan eduki behar da, bustitzen badira, bere eragina galtzen dutela.
- Karakola nahiz bareentzako babes lekuak ezarri baratzean, ondoren erraz biltzeko modukoak (teilag , buruz behera jarritako mazetak...). Bildu eta gero oiloei bota edo sukaldaritzako erabili ditzakegu.
- Aho zabaleko ontziak lurperatu eta erdiraino garagardoz bete bareak bertan itozteko (kontutan izan zenbait garagardo markek gehiago hurbilarazten dituela).
- Kafea urarekin nahastu ondoren (1/10 ura), landareak nahiz lurra busti; kafeinak moluskizida propietateak ditu.

Azkenez, teknika hauek kale egin badute eta ferramol erabiltzera derrigortuta bagaude, zer erabiltzen dugun eta nola erabili behar dugun ezagutu behar dugu gutxienez. Hona hemen ferramolari buruzko informazioa:

Ferramola, amu moluskizida

Konposaketa: % 1 p/p burdin-trifosfatoa. Osagai nagusi bezala burdina duen pikorduna da eta naturan ere horrela azaltzen da.

Deskribapena: pilula itxurako formulazioak bareak erakartzen ditu. Jan eta berehala, elikatzeari uzten diote eta arrastorik utzi gabe hil egiten dira. Produktu eraginkorra da tenperatura baxuetan eta euriarekin ere iraunkorra da; gizakientzat ez du kalterik eragiten eta lurreko organismo onuragarrietzat eta ugaztunentzat ez da toxikoa.

Dosia eta erabilera: Ferramola eskuz edo bitarteko mekanikoekin aplikatu behar da, beti produktua landarearen inguruan zabalduz, tarte handia utziz eta infestazioaren hasieran edo kaltearen lehen eraginak ikusterakoan aplikatuz; ahal baldin bada, iluntzean aplikatuko da (purraka botako dugu, ez piloetan). Dosi arrunta metro koadroko gramo bat da; beraz, 500 g dituen Ferramol kaxa 500 metro koadrorako erabiltzen da. Profesionalak ez diren erabiltzaileentzat baimenduta dago. Baratzezain profesionalak honako dosiak gomendatzen dituzte (erreferentzia izan daiteke):

- Labore-lerroen artean aplikatuz gero:
 - Prebentziozko tratamenduak: $0,4 \text{ g/m}^2$
 - Tratamendu sendagarriak: $0,75 \text{ g/m}^2$.
- Labore guztiaren gainazalean aplikatuz gero:
 - Prebentziozko tratamenduak: $1,2 \text{ g/m}^2$
 - Tratamendu sendagarriak: $2,5 \text{ g/m}^2$.

Caracoles y babosas

Tanto en primavera, como en otoño, cuando se suceden épocas de mucha lluvia y de tiempo soleado, proliferan los caracoles y babosas, devorando rápidamente brotes, plántulas y hojas de muchas hortalizas.

En agricultura biodinámica, siempre que no sea una plaga, su presencia se considera beneficiosa, ya que su baba aporta calcio orgánico al suelo. De todos modos si su proliferación supone un problema en nuestra huerta, podemos probar diferentes técnicas, dejando como último recurso el uso de productos industriales, solo para cuando el resto de las técnicas no han resultado efectivas. Técnicas posibles:

- Atraer a la huerta depredadores naturales como sapos, erizos, estorninos.
- Esparcir serrín, ceniza, cal muerta (sin restos de pinturas o químicos similares) alrededor de las plantas sensibles, sin olvidar que, en cuanto se mojan, pierden su eficacia.
- Distribuir por el huerto elementos que sirvan de cobijo a caracoles y babosas y que nos faciliten poder recogerlos después (tejas o tiestos colocados boca abajo). Una vez recogidos estos caracoles se los podemos dar a las gallinas o cocinarlos.
- Enterrar recipientes de boca ancha a ras de suelo y llenarlos hasta la mitad con cerveza, donde las babosas se ahogarán. Hay que tener en cuenta que la marca de la cerveza influye a la hora de atraer a las babosas.
- Rociar las plantas y la tierra con café diluido en una proporción de 1/10 con agua, ya que la cafeína contiene propiedades molusquicidas.

Finalmente, si ninguna de estas técnicas ha resultado efectiva y optamos por el uso del ferramol, debemos conocer como mínimo cómo utilizarlo de forma adecuada. He aquí información para saber de **qué se trata y como utilizarlo**:

Ferramol, cebo molusquicida

Composición: 1% p/p trifosfato férrico. Granulado compuesto de hierro como principio activo, igual que se encuentra en la naturaleza.

Descripción: La formulación pildorada de Ferramol atrae a los limacos, que nada más ingerirlo dejan de alimentarse y se retiran para morir sin dejar rastro. Es un producto eficaz a bajas temperaturas, tiene cierta persistencia a la lluvia, es inocuo para humanos y no es tóxico para los organismos beneficiosos del suelo ni para mamíferos.

Dosis y modo de empleo: Ferramol debe ser aplicado manualmente o por medios mecánicos, siempre distribuyendo el producto alrededor de las plantas (esparcir a voleo, no en montones) de forma muy espaciada, al inicio de la infestación o al observarse los primeros síntomas de daño, preferentemente al atardecer. La dosis general es de 1 gr/m² en jardinería por lo que una caja de Ferramol 500 g da para 500 m². Uso autorizado a aplicadores no profesionales. Estas son las dosis de aplicación recomendadas por los productores hortícolas, y que pueden servirnos de referencia:

- Aplicando entre las líneas de cultivo:
 - Uso preventivo: 0,4 g/m².
 - Uso curativo: 0,75 g/m².
- Aplicando en toda la superficie de cultivo:
 - Uso preventivo: 1,2 g/m².
 - Uso curativo: 2,5 g/m².